

Tokiko hizkera bizirik dagoen herri baten errealitateaz

Amaia Arauzo, Xabier Arauzo

Asko dira Euskal Herrian hizkuntza normalizazioaren bidean lanean ari diren udalerrriak eta asko dira, halaber, gehiago edo gutxiago, baliabide ekonomikoak zein pertsonalak gorabehera, euskararen normalizazioa berreskuratzeko asmotan, gaiaren inguruan egiten diren hausnarketa, azterketa, ikerketa, diagnostiko, diseinu, plan, komunikazio, ebaluazio, hipotesi, jardunaldi eta abarrekoak. Artikulu honetan, gure asmoa eta helburua da ekarpen txiki bat egitea tokiko hizkera bizirik dagoen herri baten berezitasunetik abiatuta.

Sarrera Azken urteotan, euskararen normalizazioan lanean dihardugunok eskenatoki berri bat dugu udalerriotan: atzerritik etorri diren bizilagun berriak gero eta gehiago dira. Eta arrazoi ekonomiko eta sozialak eraginda, badi-rudi gero eta gehiago etorriko direla. Eskenatoki berri horretan herriaren errealitate soziolinguistikoa aldatu egiten da eta atzerritik etorri berriak –herritar/hiritar berriak– eragin-esparru bihurtzen dira normalizazio-prozesurako planetan.

EBPN^{1*} dugu udalerriotako hizkuntza normalkuntzako teknikariok hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko oinarritzko tresna. Herri/hiriaren egoera soziolinguistikoaren arabera zehazten ditugu epe motzera edo luzeagora lortu nahi ditugun helburuak eta aurrera eramaten ditugun egitarauak. Horrela, udalerrri askotan egoera soziolinguistikoak baldintzatu egiten du martxan jartzen ditugun ekimenen izaera.

Artikulu honetan, hausnarketa egingo dugu aztertuz tokiko hizkera bizirik dagoen eta hizkera horrek bizitasun eta presentzia handia duen herrian ea hizkera hori kontuan hartzea komeni ote den errealitate soziolinguistiko berriari erantzuteko.


Igorre Bizkaiko Arratia haranaren hegoaldean dago eta bailarako herririk handiena da. 2009ko abenduaren 31ko erroldako datuen arabera, Igorren 4.263 biztanle bizi dira. Horietatik 312 atzerritarrak dira (%7,3); atzerritartzat jotzen ditugularik Espainiar estatutik kanpo jaio direnak.

Igorreko egoera soziolinguistikoa zein den jakiteko erreferentziako datuak 2006 urteko kale erabileraren neurketakoak dira. Bertan jasotakoaren arabera, euskararen ezagutza altua da Igorren. Izan ere, %73,4 euskalduna da; ia euskaldunak, ordea, %13,8 eta erdaldunak %12,7.

Ezagutzaren datuak ikusita, pentsa liteke erabilera ere altua dela, hau da, estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera (euskaldunek aukera duten egoera guztietan euskaraz egiten dutela suposatuz espero daitekeen erabilera) gutxienez %45,7koa izan beharko lukeela J. L. Alvarez Enparantzaren *-Txillardegi-* eredu matematikoaren arabera. Aitzitik, erabilera espero daitekeena baino 9 puntu baxuagoa da: %36,4koa. Erabilera areagotzea da azken urteotan Igorreko Euskararen Plan estrategikoaren lehentasuneko helburua eta egiteko horretan biztanle berriak hartu beharko ditu bere baitan, hau da, urtetik urtera kultura, jatorri zein hizkuntza desberdina izango duten Igorreztar berriak. Hona etorkinen datuak laburki azalduta:

2009ko Igorreko errolda datuetan oinarrituta, etorri berriak 24 herrialde desberdinetakoak dira, eta erdia baino gehiago bi herrialdetatik etorri dira: Errumaniatik %36,5 eta Boliviatik %20,1. Algeriatik etorritakoek ere badute pisurik, azken urtean bikoiztu egin baita etorritakoen kopurua, (%12,8) (ikus .1). Adin-tarteak aztertuz gero, gehienbat 25 urtetik gorakoak dira Igorreztar etorri berriak (%61).

.1:



Urtetik urtera izan duen bilakaerari erreparatzen badiogu, datu esanguratsua da 2005etik hona bikoiztu egin dela etorkinen kopurua Igorren; 145 izatetik 312 izatera pasatu dira eta pentsa genezake urtetik urtera haziz joango den kopurua dela.

Motibazioa eta integrazioa

Egoera horren aurrean, euskarara, geure hizkuntzara erakarri nahi ditugu. Baina geurera etorri eta konturatzen direnean, gizartea elebiduna dela, hizkuntza biak ofizialak, baina bietako bat egoera gutxituan dagoela motibazio eta gogo handia beharko dute gaztelaniaz gain (horixe izaten baita lehenengo hautua), euskara ere ikasteko.

Txepetxek erakutsi zuen bezala, erabileran eta ezagutzan eragiteko motibazioan eragin behar da. Elkarrekin lotutako hiru ontzien irudiaren bitartez jakitera eman zigun: haurrek jarraitzen dioten ibilbide naturalari jarraitzen ez diotenen ibilbide kulturalari jarraitzen diote. Eta ibilbide horretan, motibaziotik hasita, ezagutzaren ontzira doaz gero eta, azkenik, erabileraren ontzira pasatzen dira.

Motibazioaren ontziak nahikotasun-maila lortzen duenean bakarrik bete daitezke ezagutzarenak eta erabilerarenak. Pentsa liteke tokiko hizkera bizirik dagoen herri batean etorkinak euskararen mundura erakartzeko motibazioaren noranzkoa integratiboa dela. Ez dugu ahaztu behar, hizkuntzak giza talde baten mundu-ikuskerara islatzen duen heinean, hizkuntza gizarte integratiborako bidea dela.

Gogora ekar dezagun John Berry-ren grafikoa (.2).

.2:

	Berezko identitatea eta ohiturak gordetzen dira		
		BAI	EZ
Beste taldekoekiko harremanak sortu eta mantentzen dira	BAI	Integrazioa	Asimilazioa
	EZ	Bereizketa	Bazterketa

Integrazioaz zer ulertzen den adierazten duen taulan (.2) ikus dezakegu, berezko identitatea eta ohiturak gordez eta beste taldekoekiko harremanak sortuz eta mantenduz lortzen dela integrazioa. Horrela bada, eragiketa hori betetzen ez dutenak, asimilaziora, marjinaziora edota bereizketara eramango ditu.

Azterketa horren aurrean, ahaleginak egin beharko ditugu identitatea eta ohiturak alboratu barik, herriko beste taldekoekin harremanak izan ditzaten. Baina, zein da beste “taldeak” diogun horiek darabilten hizkuntza? zein da tokiko hizkera bizirik dagoen herri baten komunitatea osatzen duen hizkuntza? Horixe da artikulu honetan argitu nahiko duguna.

Hipotesia

Josep-Lluís Carod-Rovira-k sarri aipatu duen moduan, hizkuntza koofizialak dauden Estatuko erkidegoetan hizkuntza gutxitua eraginkorragoa da etorkinei integratio-bidean laguntzeko gaztelania baino. Adibide bat jartzearen, atzerritik datorren errumaniarrak Euskal Herrian gaztelania ikasten badu, herritar askok errumaniartzat hartuko dute luza-

roan –beti?–. Aitzitik, euskara ikasten duen errumaniarra euskalduna da Euskal Herriko herritar gehienentzat, euskara ikasten duen momentutik bertatik.

Are gehiago hizkuntza gutxitu horren bizitasuna eta presentzia handia den lekuetan, Igorren esaterako, euskara ikasten eta erabiltzen duen atzerritarra azkarrago eta era osatuagoan integratuko da gaztelania baino ikasten ez duen atzerritarraren aldean.

Horraino ados, baina zer gertatzen da tokiko hizkera bizi den eta euskara batutik urrun samar dauden hizkerekin?

Artikulu honetan egiaztatu –edo ezeztatu– nahi dugun hipotesiaren oinarrian, hain zuzen ere, ideia horixe dago: integratuzko bidea tokiko hizkera izan liteke, eta ez euskara batua, baldin eta baldintza hauek betetzen badira udalerrian:

1. Tokiko hizkera bizirik egotea;
2. komunitate linguistiko horren bizitasuna eta presentzia handia izatea;
3. tokiko hizkera horretatik euskara batura distantzia edo alde nabarmena egotea.

Aztertu nahi izan dugu hori horrela den ala ez, hau da, tokiko hizkerak integratuzko-bidean jartzen ote dituen etorkinak ezaugarri horiek dituzten udalerrietan eta, ondorioz, neurri zehatzak hartu behar ote ditugun, besteak beste, helduen euskalduntzean, erabilera sustatzeko neurrietan, eta, oinarritzko lehen eta bigarren hezkuntzan. Hartara, ikuspegi soziologiko batetik integratuzko lortzeko, errazteko edota hobetzeko, tokiko hizkera kontuan hartu beharko litzateke eta, bestalde, euskararen erabilera sustatzeko planetan ere jaso beharko litzateke ezaugarri hori, baita ekintza-planak horretara egokitu ere.

**Elitea:
arrakastarako
motibazioa**

Goian aipatutakoaz gain, arrakasta lortzeko motibazioa ere aintzakotzat hartzekoa da baldintza horiek betetzen diren udalerrietan, artikulu honetan landuko ez dugun arren, azterketa xeheagoa eskatuko lukeelako. Hau da, udalerriko elite sozio-ekonomiko eta politikoen hizkuntza-ereduari jarraitzean sorburua duen motibazioak indarra izan lezake tankera honetako ezaugarriak dituzten udalerrietan:

- Tradiziozko udal-agintaritzak euskaltzalea.
- Hezkuntza-arlo erabat euskalduna.
- Kultur arloko euskarazko eskaintza handia.
- Arlo ekonomikoko zenbait enpresaren euskararen aldeko jarrera.

Esan dezakegu Arratian Euskal Herriko leku gehienetan gertatu ez den bezala, eliteen hizkuntza-eredua euskara dela eta horrek hizkuntza komunitate sendoa izatea ahalbidetu duela².

Hipotesiak. –

- Igorren, giza harreman arrunt eta ohikoetan euskarak bizitasun eta presentzia handia du.
- Euskarazko hizkuntza komunitatea arratierak osatzen du, ez euskara batuak.
- Hizkuntza bidezko integrazioa arratieraren bidez gertatzen da.

Inkestak. –

Hipotesiok frogatzeko lagina euskara ikasten dabiltzan hainbat taldek osatu dute:

1. AISA taldea: Talde hauen xedea da etorkinak euskara ikastera bultzatzea. Harrera-ikastaro horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinentzat diseinatu dira bereziki. Jatorri ezberdinetako 15 ikaslez osatutako taldea da, astean bitan eta 3 orduko moduluari jarraikiz ikasten duena.
2. Institutuan sortu diren gazte etorkinentzako euskara-talde bi: taldeen helburua, euskara integrazio tresna gisa ulertuta, euskara-maila hobetzen laguntzea da, *euskara* = *eskola* loturarekin apurtzea eta beraien adineko neska-mutilekin harremanak eraiki eta estutzea. Astean 3 orduz arituko dira urtariletik ekainera.
3. Mankomunitate mailan³ gazte etorkinekin batera martxan dagoen integrazio-taldea.
4. Euskaltegiko 2. mailako ikasleak, berbalagun bi eta merkatari-taldeko ikasleak: Igorrekoak ez diren euskaldun etorkinen iritzia jaso nahi izan dugu, bertako etorkin erdaldun elebakarren (esaterako Bilbo, Leioa, Galdakao, Usansolo, Basauri, Santurtzi) eta atzerriko etorkinen artean emaitzetan alderik dagoen ikusteko.

Horrela bada, multzo bitan banatu ditugu lagina osatzen duten taldeak: batetik, kanpoko inmigrazioa, Aisa, Institutu eta Mankomunitate mailako taldeez osatutakoa, eta bestetik, barneko inmigrazioa, Igorren jaiok ez diren euskaltegiko ikasleez osatzen dena. Denak ere Igorreztar berriak izanik, herrian etorkinak dira; baina, elkarrekin alderatuta izaera guztiz bestelakoak dituzte.

Lehenengoak herrialde eta kultura desberdinetatik etorri dira eta bigarrenak, Igorrek izan ditzakeen berezitasunak gorabehera, kultura eta herrialde bereko parte dira. Horregatik interesgarria iruditu zaigu iritzietan alderik dagoen ala ez aztertzea.

Helburua bilatzailea da. Lanak estatistikoki izan dezakeen balioa, beti ere, lortu dugun lagin kopuruaren arabera izango da, besteak beste. Beraz, argi utzi nahi dugu inkesta honen bidez, gaira hurbildu baizik ez dugula egin nahi. Nolanahi ere, Igorren euskara eta integrazioa uztartzen diren egoera naturalak, eta, nahita eta jakinaren gainean sortutakoak


aprobetxatu ditugu, hau da, Mankomunitatean eta Udalean berezko inertzia naturalaren ondorioz sortu diren foro guztiak aprobetxatu ditugu eta nekez lor liteke horietatik kanpoko lagin fidagarririk (Igorreko egoera linguistikoaren nondik norakoaren berri dutenak, gutxieneko bertakotze edo sustraitze-gogoia erakutsi dutenak Igorrekiko).

Inkesta bidezko metodologia kuantitatiboa erabili dugu, eta gehienbat galdera itxiak izan dira (ikus I. eranskina).

1. Hipotesia: *Igorren, giza harreman arrunt eta ohikoetan euskarak bizitasun eta presentzia handia du.*

Igorren euskarak bizitasun eta presentzia handia duen ala ez hipotesiari dagokionez (geroago aztertuko dugu euskara hori batua ala arratiera ote den), jakin nahi izan dugu Igorreko hizkuntza erabileraren gainean etorri berriek duten pertzepzioa, hau da, euskara ala gaztelania gehiago entzuten den edota biak berdin erabiltzen diren (ikus .3).

.3:



Atzerritarrek osatzen duten ezkerreko multzoan, grafikoan (.3) ikusten denez, pertzepzio nagusia da berdin erabiltzen direla euskara eta gaztelania. Baina barne-etorkinez osatutako multzoan pertzepzioa bestelakoa da, alegia, gaztelania zertxobait gehiago erabiltzen da euskara baino. Honek erakusten du artikuluaeren hasieran Igorreko euskararen erabileraz esan duguna neurri batean bat datorrela guk jasotakoarekin. Hala ere, atzerritarren pertzepzioak euskarari bizitasun eta presentzia handiagoa ematen dio kale neurketak baino.


Beraz, ondoriozta dezakegu euskara bizirik dagoela eta presentzia handia duela Igorren, baina gaztelaniak presentzia handixeagoa du; euskara gehiago erabiltzen dela diotenak nabarmen gutxiago dira gaztelania gehiago erabiltzen dela diotenak baino.

Euskarak duen presentzia eta erabilera neurtzeko beste adierazle bat izan liteke ea sumatzen ote duten etorri berriek euskara esparru batean edo bes-


tean gehiago erabiltzen dela. Hurrengo grafikoari erreparatzen badiogu (.4), alde handiz eskola-giroan entzuten da gehien euskara. Alegia, euskararen indarra batez ere eskolarekin eta, oro har, irakaskuntzarekin lotzen dute. Pertzepzio horrek erlatibizatu egiten du, beharbada, aurreko paragrafoan Igorreko euskararen bizitasunari buruz adierazitakoa. Eta, adieraz genezake Igorren euskarak ez duela hainbesteko bizitasunik, guk artikulu honetako hipotesiaren lehenengo zatian aipatu dugunaren kontra.

Argi dago euskara araututa dauden esparruetan presentzia handiagoa duela, hau da irakaskuntzan, udaletxean eta kultur etxean. Eta, arautu gabekoetan etorri berriek euskarari presentzia aitortzen badiote ere –kalea da euskarak Igorren presentzia handiena duen hirugarren esparrua–, tabernetan eta, batez ere, komertzioetan ez diote euskarari presentzia handiegirik aitortzen.

.4:



.5:




Euskararen erabilera adinarekin lotuta ote dagoen galdetuta (.5), ez dugu erantzun bateratu edo ildo batekorik jaso. Beraz, ezin dezakegu ondorio-rik atera euskararen bizitasunarekin eta presentziarekin loturarik ote duen argitzen duenik:

Ikuspegi konparatibo batetik Igorren euskarak duen bizitasuna eta presentzia zein den jakiteko, etorri berriei Euskal Herriko beste udalerri-
ren batean bizi izan ote diren galdetu zitzaien eta askok baietz erantzun zuten.

Beheko grafikoan (Ikus .6) argi erakusten den bezala, alderaketa egi-
nez, bizi izan diren eta ezagutzen dituzten beste udalerri batzuetan baino
gehiago erabiltzen da euskara Igorren:

.6:




Lehenengo hipotesiaren atal honetan ikusitakoaren arabera, gastuak presentzia eta bizitasun handia du ikuspegi kuantitatibotik. Ikuspegi kualitatibotik, ordea, kontrajarriak ematen duten ikuspegi bi ditugu: batetik, esparru formaletan du presentziarik handiena euskarak Igorren, baina bestetik, esan dezakegu euskararen eta gaztelaniaren presentziaz duten pertzepzioa euskararen aldekoagoa izan litekeela. Izan ere, euskararen presentzia eta bizitasuna gizartearen esparru guztietara hedatuta dago –horietako batzuk prestigiodunak, udaletxea, kultur-etxea eta kalea– eta gainera, bizi izan diren eta ezagutzen dituzten beste udalerrietan baino presentzia handiagoa sumatzen dute etorkinek Igorren eta nahi eta nahi ez izango dute eguneroko bizitzan euskararekin harremanik etorri berriek.

Ondorioz, ezin esan dezakegu lehenengo hipotesia egiaztatzen denik, euskararen presentzia eta bizitasuna ez delako euskararen aldekoagoa. Hala ere, alderaketa eginez, eta ikuspegi kualitatibotik, Igorren euskarak badu presentzia eta bizitasuna, beharbada, artikulua hasieran aipatu-tako 2006ko Kale neurketak aitortutakoa baino handiagoa.

2. Hipotesia: *Euskarazko hizkuntza komunitatea arratierak osatzen du, ez euskara batuak.*


.7:



Bigarren hipotesian zalantzarik ez dago, ordea. Barne inmigrazioko taldea osatzen duten guztien ustez, tokiko hizkera erabiltzen da gehiago gaztelania baino. Eta beste herrialde batzuetatik etorritakoek ere arratieraren erabilera euskara batuarena baino handiagoa dela uste dute. Ez dakienik ere badago kanpoko inmigrazioaren taldean, nahiz eta kopuru esanguratsurik osatzen ez duten.

Hurrengo grafikoan (.8) ikus dezagun zein esparru lotzen duten etorri berriek tokiko hizkerarekin eta zein euskara batuarekin:

.8:




Barne edo kanpoko inmigrazioa ote den berezi gabe, nabari da tokiko hizkera dela alde handiz kalean erabiltzen dena. Emaitza hauetatik ondoriozta dezakegu hizkuntza bizirik dagoela eta presentzia eta bizitasun handia duela adieraziko liguketuen esparruetan, alegia arautu gabeko

esparruetan (kalea, tabernak, komertzioak), arratiera nagusitzen dela eta ez euskara batua.

Aipagarria iruditu zaigu esparru formaletan ere, hau da, eskola, institutu eta udaletxean, arratierak presentzia handiagoa duela euskara batuak baino.

Ikus dezagun kanpo eta barne inmigrazioak emandako erantzunetan alderik dagoen eta ondorio berririk atera ote dezakegun arratieraren erabilerrari buruz (.9):

.9:



Kanpoko inmigrazioaren kasuan, ez da ikusten erantzun baterakoirik, beharbada multzoa osatzen duten kideak ere elkarren artean alderatuta jatorriaz, kulturaz, eta abarrez ere aski bestelakoak izateagatik delako eta pertzepzio ezberdinak dituztelako arlo honi buruz, beraz ez dugu ondorio argirik atera (.9).

Barneko inmigratioari dagokionez, ordea, joera argia eta homogeneoa ikusten da: kolektibo honen arabera, arratiera baino ez da erabiltzen kalean, tabernetan, komertzioetan eta kiroldegian, eta esparru formaletan ere arratiera nabarmen gehiago erabiltzen da euskara batua baino. Euskara batua, ia-ia udaletxe mailara mugatzen dute.

Bigarren hipotesia aztertu dugun atal honetan ikusitakoaren arabera, ondorioztatzen dugu egiaztatzen dela hipotesi hori.

3. Hipotesia: Hizkuntza bidezko integrazioa arratieraren bidez gertatzen da


Aipatu dugu euskarak guk pentsatu eta lehenengo hipotesian adierazitakoa baino bizitasun eta presentzia baxuagoa duela. Halaber, adierazi dugu inkestan euskara aipatu denetan, arratieraz ari garela, tokiko hizkerari aitortzen baitzaio euskara batuari baino erabilera askoz han-

diagoa. Hortaz, pentsa genezake euskarak integrazioarako bidea errazten duen neurrian, integrazio-bide hori arratieraz urratu beharko litzatekeela. Ikus dezagun integrazioari buruzko galderetan jaso ditugun emaitzak.

Atal honetan aipatu beharra dugu antzeko galdera bi egin genituela integrazioari buruz, bata euskara ikasteari lotua eta bestea euskaldun izateari lotuagoa, baina erantzunetan elkarren gaineratu egin direnez galdera biak, segidako grafikoan (.10) jasotakoa baino ez dugu artikulu honetara ekarriko.


Grafiko horren arabera, dudarik ez dago euskarari integrazioarako balioa aitortzen diotela, bai kanpo inmigrazioa osatzen duten taldekoek, bai barne inmigrazioa osatzen dutenek:

.10:



Gehienek uste dute euskara ikasiz eta erabiliz gero, Igorretarragoak izango direla eta, horrenbestez, herrian integratuago egongo direla. Hala ere, nahikotxok aipatu dute, euskaradun izan gabe, euskalduntze-prozesua abiaraztea ez dela elementu edo baldintza erabakigarria Igorretarrago izateko. Beraz, horren arabera ondoriozta daiteke euskara ikasi gabe ere Igorretartzat dutela beren burua, euskarak ez dituelako Igorretarrago bihurtuko.

Aipatzekoa da hori kanpo inmigrazioko taldean baino ez dela nabarmentzen eta hori berori gertatzen dela eleaniztasunaz egindako galderari dagokienez ere, kanpo inmigrazioko taldea osatzen duten etorri berriek eta barne inmigraziokoek pertzepzio ezberdina erakusten baitute. Itandu zaie nobere hizkuntza jakiteaz gain beste batzuk jakitea garrantzitsua ote den eta kanpo inmigrazioa osatzen duten taldeko partaide nahikotxok ez dira alde azaldu, kontra ere agertu ez diren arren. Barne inmigrazioa osatzen dutenen artean, ordea, guztiek adostasuna erakutsi dute:



Hirugarren hipotesiaren baieztapenak aztertuta, esan dezakegu hizkuntzaren bidez integrazioa errazten dela edo integratzen laguntzen duela. Halaber, bigarren hipotesia egiaztatutzat eman dugun heinean, hau da, euskarazko hizkuntza komunitatea Igorren arratierak osatzen duela eta ez euskara batuak, ondorioztatzen dugu hizkuntza bidezko integrazioa gertatzekotan, tokiko hizkeraren bidez gertatuko dela eta ez euskara batuaren bidez.

Ondorioa eta gogoetak

Kontuan hartu behar dugu lagineko norbanako-kopurua txiki samarra dela eta, inkestaturen tipologia anitza izanik, lagina ez dela guztiz adierazgarria ondorio erabatekorik ateratzeko. Onartu dugu bestalde, tokiko hizkeraren eta euskara batuaren arteko distantzia handia dela, zenbatekoa den zehaztu gabe. Muga horiek kontuan izanda, honako joera eta zantzuak antzematen ditugu gaitzat hartu dugun *tokiko hizkera eta integrazioaren* inguruan.

Euskarak Igorren duen presentzia eta bizitasuna kontuan hartzen badugu, alegia, euskarak ez duela gaztelaniak baino esparru zabalagoa betetzen, ezin dugu esan euskara, hizkuntza gisa, integrazioarako elementu guztiz erabakigarria denik Igorren, bai ordea *integrazioan nabarmen lagun lezakeela eta hizkuntza bidezko integrazioa gertatzekotan, tokiko hizkeraren bitartez etorriko dela, eta ez euskara batuaren bitartez*; eta hori berdin gerta liteke antzeko ezaugarriak dituzten udalerrietan, alegia, tokiko hizkera bizirik egotea eta presentzia handia izatea esparru ezberdinetan (baita ohiko egoera arrunt eta egunerokoetan) eta tokiko hizkera horretatik euskara batura distantzia edo alde nabarmena egotea.

Idea horren harira, ezaugarri horiek dituzten udalerrietan tokiko hizkerak integrazioarako gaitasuna izatea aldeko eragilea da eta udaletako Euskara Planek aintzat hartu beharko lukete. Halaber, ematen du komeni dela

aztertzea barneko eta kanpoko etorkinek euskara jasotzen duten tokietan (irakaskuntza, oro har, eta helduen euskalduntzean lan egiten duten erakundeak) tokiko hizkeraren irakaskuntza ere jaso behar ote luketen haien irakaskuntza-programetan.

Horrek, jakina, oztopo batzuk baditu. Batetik, helduen euskalduntze eta irakaskuntza-plangintzen zurruntasuna (bide berriak jorratzeko erresistentziaz ari gara) bestetik era honetako hizkeren arautze edota zabalkunde-falta eta, azkenik, zenbaitek tokiko hizkerei buruz duten pertzepzio faltsua.

Kontua ez da ikuspegi filologiko batetik tokiko hizkerak zertan diren zehaztea, euskara batutik ezberdintzeko edo aldentzeko, baizik eta tokiko elementu komun, konbergenteak eta zabaldu behar direnak zein diren zehaztea⁴. Horrela, irakaskuntzan eta helduen euskalduntzean oinarria izango lukete lantegi horri heltzeko.

Zenbaitek tokiko hizkerei buruz duten pertzepzio faltsuari dagokionez, hau da, tokiko hizkera sustatzea euskara batuaren edota hizkuntza nazionalaren kontra doalako ustea, gure hipotesia da hizkera bakoitzak bere esparrua duela eta ez diotela elkarri kalterik egiten ezaugarri hauek dituzten udalerrietan eta, are gehiago, konbergentziarako elementu izan litezkeela tokiko hizkerok. Azken ideia horrek artikulu honetan ditugun helburuetatik at dagoen azterketa eskatuko luke.

Bestalde, etorri berrien tipologiari dagokionez, beharbada komeniko litzateke gehiago sakontzea barneko inmigrazioa osatzen duten taldeak eta kanpoko inmigrazioa osatzen duten taldeak ezaugarri komunak ote dituzten edo batzuekin eta besteekin ezberdin jokatu behar ote den hizkuntza-planifikazioan.

Guk egindako galdetegien bidez homogeneousan handiagoa ikusi dugu barne inmigrazioko taldea osatzen dutenen artean, baina lagina ez da esanguratsua ondorio argirik ateratzeko.

Azkenik, artikulu honetan azaldutakoa alderatu beharko litzateke ezaugarri bertsuko udalerrri gehiagotan, jakinda zaila dela alderaketa egiteko moduko ezaugarri berberak dituzten udalerrri asko egotea, esan nahi baita zaila dela tokiko hizkeraren eta euskara batuaren arteko distantziari tamaina hartzea –euskara batutik urrun ote daude?–, eta zaila dela, orobat, erroldako datuak, euskararen ezagutza-datuak, kaleko erabileraren neurketetan jasotako datuak antzekoak izatea udalerrri guztietan.

Oharrak

1. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Eusko Jaurlaritzak hizkuntzaren normalizazioa esku-ratzen jarraitzeko diseinatu duen plan strate-gikoa da. Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko hizkuntza poli-tikako neurriak erabakitzeko eta bultzatzeko; eta Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lor dadin, euskararen aldeko urratsak areagotzeko.
2. 2009ko ekainean Nafarroako Gobernuak hizkuntza normalkuntzako teknikarien bilgunea-ren harira egindako ponentzia: Igorreko Euska-raren Plan Estrategikoa 2001-2009 epealdia.
3. Arratiako Mankomunitatea osatzen duten uda-lerriak: Bedia, Lemoa, Igorre, Dima, Arantzazu, Artea, Areatza, Zeanuri eta Ubide.
4. Arautze- eta zabalkunde-lan horretan urrats sen-doak egin dira Arratian Begitu tokiko aldizkaria-ren, Gorbeialde irratia-aren eta Geure Berbategia egitasmoaren bidez, besteak beste.

Bibliografia

- Colette Sabatier eta John Berry** “Inmigración y aculturación” in Richard Y. Bourhis eta Jacques-Philippe Leyens, *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos*, Madril, McGraw-Hill, 1996, 217-239 orr.
- Igorreko Udala** 2009. Igorreko Udaleko 2009ko errolda datuak.
- Igorreko Udala**, 2010. *Inmigrazio Planeko Ikerketa eta Diagnostikoa*, 2010.
- Josep-Lluís Carod-Rovira, Albert Rossich, Joan Solá** 2005 *El futur del catalá*. Barcelona: Empúries, Biblioteca Universal.
- Sánchez Carrión, Jose Maria “Txepetx”** 1987. *Un futuro para nuestro pasado*.
- Soziolinguistika Klusterra**, 2006 Igorreko Euskararen Kale Erabileraren Neurketa.

1. Eranskina

INKESTA

Euskera eta integrazioaren arteko lotura Igorren/ *Relación entre integración y euskera en Igorre*

Jatorrizko herrialdea / País de Origen: _____

Adina / Edad: _____

Emakumezkoa / Mujer

Gizonezkoa / Hombre

1.- Zeure iritziz, Igorren zein hizkuntza hitz egiten da gehiago? *En tu opinión en Igorre qué lengua se habla más?*

- a) Euskera
- b) Gaztelania / *Castellano*
- c) Biak berdin / *Las dos por igual*

2.- Non entzuten duzu gehiago euskara? *¿Dónde percibes que se utiliza más el euskera?*

- a) Kalean / *En la calle*
- b) Eskolan/Institutuan /*En la escuela-instituto*
- c) Komertzioetan / *En los comercios*
- d) Tabernetan / *En los bares*
- e) Udaletxean / *En el ayuntamiento*
- f) Polikiroldegian /*En el polideportivo*
- g) Kultur Etxean / *En la casa de cultura*
- h) Beste batzuk / *Otros*

3.- Euskarari dagokionez, Igorren zein euskaraz berba egiten da? *En lo referente al euskera, ¿qué tipo de euskera se utiliza en Igorre?*

- a) Euskara batua
- b) rriatiako euskara / Euskera de Arratia
- c) Biak berdin / *Los dos por igual*
- c) Ez dakit / *Lo desconozco*

4.- Bigarren atalean aipatu dituzun esparruetan ze euskara erabiltzen da? Markatu X batekin. En los ámbitos citados en la pregunta 2ª, ¿qué tipo de euskera se utiliza en Igorre? Marca con una X.

Esparrua / Ámbito	Euskara batua	Arratiako euskara
Kalean / <i>En la calle</i>		
Eskolan/Institutuan / <i>Escuela-instituto</i>		
Komertzioetan / <i>En los comercios</i>		
Tabernetan / <i>En los bares</i>		
Udaletxean / <i>En el ayuntamiento</i>		
Polikiroldegian / <i>En el polideportivo</i>		
Kultur Etxean / <i>En la casa de cultura</i>		
Beste batzuk / Otros		

5.- Euskal Herriko beste udalerrri baten bizi izan zara? Non? ¿Has vivido anteriormente en otro municipio de Euskal Herria? ¿Dónde?

- a) Bai: _____
 b) Ez

6.- Baiezkoa bada, Igorrerekin alderatuta non entzun duzu euskara gehiago? ¿Si has contestado afirmativamente y si lo comparamos con Igorre, ¿dónde se habla más euskera?

- a) Igorren / *En Igorre*
 b) Beste udalerrian/etan / *En el/los otro/s municipio/s*

7.- Euskara jakitea eta adina lotuta daude? ¿Percibes que el uso del euskera esté más ligado a un sector concreto de edad?, ¿qué sector?

- a) Bai: _____
 b) Ez

8.- Zergatik ikasiko zenuke/ikasten ari zara euskara? ¿Por qué motivos estudiarías/estudias euskera?

9.- Igorretzar berri gisa, euskara ikasteak Igorretzarrago egingo zaitu. Balora ezazu 1etik 5era / A l@s nuevos vecin@s de Igorre el euskera ayuda a integrarse en Igorre

1 erabat aurka <i>totalmente en contra</i>	2 aurka <i>en contra</i>	3 ez bata ez bestea <i>ni una ni otra</i>	4 ados <i>de acuerdo</i>	5 erabat ados <i>totalmente de acuerdo</i>

10.- Uste al duzu euskarak Igorren integratzeko balio dizula? Eta beste udalerrri baten? ¿Opinas que saber y utilizar euskera te ayudará a la integración en Igorre? ¿Y en otro municipio?

- a) Bai
- b) Ez

11.- Herritar guztiek norberaren hizkuntzaz gain, gutxienez beste bi hizkuntza ikastea garrantzitsua da. Balora ezazu 1etik 5era. Es conveniente que todos los ciudadanos conozcamos otras dos lenguas aparte de la propia.

1 erabat aurka <i>totalmente en contra</i>	2 aurka <i>en contra</i>	3 ez bata ez bestea <i>ni una ni otra</i>	4 ados <i>de acuerdo</i>	5 erabat ados <i>totalmente de acuerdo</i>

